

BIDEAN...

Bilbo (2001.6.6)

"Nazio-politika" deiturikoak, bere estrategia-maila eskasaren ondorioz, eta kanpoko eragileekiko (Espainia eta Frantzia) erakusten duen menpekotasuna kronikoak etengabe higatzen du gure gizarteak behin eta berriro erakutsi duen potentzial demokratiko eskerga.

Politika kontzeptuaren ulertze okerrak, indar erlazioak azken muturreraino mesprezatzek, bere horretan iraunez gero, ezinbestean, edozein kolektiboren desagertzea, zilegizko subjeto politikoa den heinean, daraman jarrera ekartzen du.

Ez da harritzekoa, aurkeztu dugun egoera ikusita, gure Herrian hain errotuta dagoen eta iritzi moralen arabera mugitzen den kultura pseudopolitiko txertatu izana, sinboloen gurtze erlijiosora iristeraino ia. Are nabarmenagoa da oraindik, gure artean "produktzio" juridikoak, eskubideak, hartzen duen garrantzia, beti ere menperatzaile ditugun kanpoko bi Estatuak eskaera moduan eta haiei gure material zein giza-ondasun guztiaren jabetza aitortuz. Baina honaino iritsi gara. Inflexio puntuan gaude. Euskaldunak, nafar hiritar garenez, gure berezitasunetik abiatuta, herri askeen kontzertu unibertsalera bildu nahi badugu, ez dugu gure instituzio gorena izan dena berrezartzea beste erremediorik: hau da, Estatuak, bera baita zapalduetako herri batek berreskuratu behar duen lehenengo eskubidea. Bera baita, gainera, herritarren norbanako zein taldekako gainontzeko eskubideak aldarrikatu, garatu eta babesten dituen erakundea.

Aurrekoa aldarrikatzen dugunean bere edukia, indarra eta zilegitasuna Estatu aske eta demokratiko batean aurkituko dituela esaten ari gara, demokrazia eta askatasunik gabe herri kolonizatu eta menpekoaren patu hitsa besterik ez baitzaigu egokituko.

Ez dago baldintza hauek asmatzen aritu beharrik, badaude. Herri honetan eta orain marko demokratikoaren berrezarpena Estatu nazional historikoaren berraktibatzetik etorriko da: Nafarroako Estatu europarra, espainiar eta frantses armada okupatzaileek armen indarrez kendu zigutena.

Ona izango da datorren uztailaren lehenean, Noaingo batailaren urtemugan (1521), gertakizun haiek eman ziren leku berean, harriaren bat-batekotasunak merezi duen arrazionaltasun politikoa gehitu ahal izateko beharrezkoak diren oinarriak ezartzen asmatzea, zorigaitzeko egun haren ondotik nabarmendu den ezintasun politikoari behin betirako amaiera emanaz. Horrela, eta askatasunaren alde bizia eman zuten 5.000 heroi haien duintasunarekin, merezi duen ospea emango diogu gure Herriak burutu duen eta politikoa izena merezi duen ekintza horri.

Azkenean, adierazi bezala askatasuna helburu duen bide zuzena aurkitua izango dugu.